


Azken hamar urteetan trafiko-istripuen ondorioz hildako gazteen tasak 15 puntu baino gehiago egin du behera

Trafiko-istripuen ondorioz hildakoen oroipenaren Munduko Eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k trafiko-istripuetan hildako 15 eta 29 urte bitarteko gazteei buruzko datuak aurkezten ditu. Datuok, webgunearen [Estatistikak](#) *on line* atalean eskuragarri daude eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak bildu ditu.

2013an trafiko-istripuen ondorioz hildako 15 eta 29 urte bitarteko EAEko gazteen tasa 2,1ekoa zen, adin talde horretako 100.000 lagunekoa. Hamar urte aurrerago, 2003an, 100.000ko tasa hori 17,9koa zen. Beraz, tasa horrek 15 puntu baino gehiago egin du behera.

Alde nabarmena antzematen da gizonen eta emakumeen artean, lehenengoan kalterako. 2013an tasa hau 100.000 lagunekoa 4,1ekoa da gizonen artean; emakumeen artean, oster, 0koa da.



Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

